

AMAIERA PUNTUA...

Córdoban, Argentinan, nengoela entzun nuen lehen aldiz Cristina Peri Rossi izena. Celestek, hango lagunak, belarrira irakurri zidan bere etxean lo egin nuen egun batean bere ipuinetako bat. “Punto final”. Hasieratik harrapatu ninduen emakume horren idazteko moduak. Ez naiz ausartzen idazle bati *ona* edo *txarra* adjektiboak ematera, baina uste dut badaudela, azaldu ezin diren arrazoiengatik, engantxatzen zaituztenak eta, alderantziz, mila alditan irakurri badituzu ere, harrapatzen ez zaituzten testu edo idazleak. Hori gertatu zitzaidan niri, esaterako *Bilbao-New York-Bilbao* eleberriarekin. Hirutan hasi naiz eleberria irakurtzen eta oraindik ez dut amaitu. Liburuak ondo egituratuta iruditzen zaidan arren eta gaia, berez, interesgarri bazait ere, ez dakit zergatik, liburuak ez nau harrapatzen. Eta, une desberdinetan irakurketari ekin badiot ere, oraindik ez dut erdiko orrietatik pasatzea lortu.

Baina, esan bezala, Cristina maitearekin ez zitzaidan halakorik gertatu, aitzitik, hasieratik liluratu ninduen bere prosa zehatz baina, aldi berean, intimoa. Eta Celesterekin ezpain lodietatik irtetzen zen ahots ezti eta ziur horrek mirestasun hori areagotzen zuen, ezin dut ukatu. Izan ere, Celestek ipuinak kontatzen zizkidanean bere ahotsaz besarkatzeko eta errealtate paraleloetara transportatzeko gai zen. Bera ezagutu nuen lehen egunean bere kartoizko tutu luzea hartu eta belarrian jarri zidan (gero jakin nuen poesia susurradorea deitzen ziotela tutu horri) eta xuabe xuabe soinu desberdinak egiten hasi zitzaidan, Cristina beraren olerki baten bertsoekin tartekatuz *sssss amo ta noche porque todo es posible tktktktktktkt sshshhh*. Bukatu zuenean begietara begiratu nion, une hartan bizi izan nuen horretatik errealtatera itzultzeko lanetan. Kartoizko tutu bat baino ez zen, baina ahotsari ematen zion efektuak, Celestek egin zizkidan soinuekin tartekatuta hainbat lekutara transportatu ninduen olerkiak iraun zuen minutu eskasean. Baso ilun batera bidaiatu nuen, zuhaitzak astintzen zituen haizeak aurpegian gogor jotzen zuen, eta itsasoaren usaina hurbil sentitzen nuen. Txalaparta soinuak ere entzun izan nituen tututik ateratzen. Eta, egun hartan ere, “*Punto Final*” ipuina xuxurlatu zidan hartan, ohean etzanda nengoela, gauza bera lortu zuen Celestek. Itsasoaren besarkada sentitu nuen gorputzean, haizeak eragiten duen hotzikara.

Errealtatera itzultzean kuleroak bustirik nituela konturatu nintzen. Celestek ez ninduen erakartzen, ez zitzaidan behin ere burutik pasatuko berarekin ezer edukitzeak. Baina bere ahotsa zen miresturik ninduena. Leku eta errealtate desberdinetara eramaten ninduelako. Une hartan Marcoren albora eraman ninduen, Barrikako hondartza hartara.

Nahigabe, barnean nituen hainbat sentimendu eta soinu berpizten asmatu zuen. Eta, horregatik, hain zuzen ere, busti nituen kuleroak, Marcoren mihia irudikatu nuelako nire titiburuak zirkuluak eginez laztantzen, Gasteizko Adurtzako auzoko jaietan liatu ondoren, elkarrekin pasatu genuen lehen asteburu horretan egin zuen bezala.

Baina, “Punto final” edo amaiera puntu horretara itzulita, esan daiteke nik beti izan nuela oso presente une hori laster helduko zela Marcorekin hasi nintzen unean. Berarekin hondartzan egon nintzen lehen aldi horretan jakin nuen bere poltsikoan egongo zela gure harremanaren amaiera puntua. Eta berak ere bazekien hori. Edo hori sentitzen nuen nik, behintzat. Horrek, oso urduri jartzen ninduen. Eta, aldi berean, berotzen ninduen.

Esan bezala, hondartzan izan genuen gure lehen hitzordua. Herrira etorri zitzaidan bisitan eta, aurretik behin baino liatu ez ginen arren, konexio handia zegoen gure artean, gorputzek lehenagotik elkar ezagutzen zutela zirudien. Hondarrean etzanda negoziarrik bere eskua somatu nuen titiak laztantzen. Eta laster titiburuak ezkutalekutik atera zitzaizkidan, kalera irtetzeko irrikitan, argia ikusteko irrikitan. Ez zitzaigun ezer gehiago axola, elkarren gorputzekin jolastu baizik ez genuen egin nahi. Gure gorputzek eta elkarri egiten genizkion laztanek sortutako erreakzioak ikertu. Deskubritu. Ezagutu. Gure kimika propioa sortu. Ura, gatza eta ezpainen gozotasuna bero pixka batekin nahasturik. Edozein gorputz esnatzeko nahastea.

Eta pixkanaka hondarza husten joan zen. Gero eta soinu gutxiago entzuten genuen inguruan. Olatuak. Ura arroka artetik erortzen. Eta soinu horren erritmoan muxukatzen ginen, soinu horren erritmoan mugitzen genituen eskuak. Lasai. Denborak aurrera egingo ez balu bezala eta bihar sekula helduko ez balitz bezala. Jada ez zegoen inor, gu baino ez, eta, ilargiaren argia lekuko bakarra genuelarik, larrua jo genuen. Pixkanaka nire gainean jarri zen eta, nire bainujantzia alde batera mugituz atzamarraz alua laztantzen hasi zitzaidan. Ez dago esan beharrik jada busti-bustirik nuela hankarte eta bere atzamarra aise irristatzen zela kobazulo heze hartako tolesdura eta izkina bakoitzetik. Eta horrela, bainujantzia kendu gabe, atzamarra atera eta bere lekuan zakila sartu zidan. Bere zakila konfidantzaz mugitzen zen nire barnean, abiadurak tartekatuz, batzuetan suabe eta bat-batean erritmoa arinduz, nire gorputzean hotzikarak sortuz. Azken dardara heldu zen arte.

Orduan esertzeko esan nion, aurrean zuen Kantauri itsasoari begira, haizea sentituz, erlaxatzeko. Eta horrela egin zuen, indioak bezala eseri zen, zakila gogor eta lodi mantentzen zitzaielarik. Bere atzean eseri eta atzetik oratu nion gerritik. Pixkanaka

eskuineko eskuaz laztantzen hasi nintzaion, nire fluidoez bustirik zuen mastilean gora eta behera, batzuetan arinago, besteetan xuabeago. Eskua libre mugitzen nuen, erritmo eta abiadura desberdinekin jolastuz, lasai, konfidantzaz. Galdurik zituen begiak, galdurik burua, itsasoaren handitasunean galdurik. Hasperen egiten zuen, dar dar. Eta horrela, azkenean azken arnasa entzun nion, itsasoari begira. Eta isuri egin zuen, harearen gainean kresal gazia utziz.

Itsasoari begira egin genuen hasperen, barrenak hustu genituen. Itsasoari begira maitemindu ginen. Eta itsaso sentitzen ginen. Bagenekien handia zela gure artekoa, azaldu ezina. Baina bagenekien ere amaiera puntua hurbil genuela.

Eta bai, hilabete gutxi batzuk geroago Gasteizko Corte Ingleseko izkina madarikatu hartan agur esaten ikusi nuen neure burua. Txilera, bere jaioterria zihoan lau hilabetez eta, bueltako hegazkina hartuta zuen arren, ez zekien zer egingo zuen. Hortaz, ez genekien puntu hori, amaierakoa ala hiru puntu izango ziren. Momentu hartan nik hiru puntuak ikusi nahi izan nituen, baina berak argi jarri zuen amaiera puntua, niretzat ikustezina zen arren. Izan ere, lau hilabete horietan edozer gerta zitekeen eta pertsona batek Ozeano Atlantikoa zeharkatzen duen unean badaki atzean uzten duena galtzeko arriskua duela. *Uno solo conserva lo que no amarra*, abestu zidan behin, Jorge Drexlerren hitzak harturik. Eta orain banekin joaten utzi behar niola, noizbait nire alboan izan nahi banuen.

Eta hala izan zen, lau hilabete geroago bueltako hegazkina hartu zuen. Eta berriro elkar ikusi genuen lehen gauean probatu genuen aulkia lehen aldiz, ondoren behin eta berriz erabili izan genuena. Aulkia *taburete* modukoa zen, pelikuletan *streeper* edo dantzariak erabili ohi dutena bezalakoa. Zakila jada lehertzeaz zuela bertan eseri nuen eta bere gainean jarri nintzen. Suabe mugitzen hasi nintzen, bere zakila pixkanaka nire barruraino sentituz. Bere zarata eta espasmoak entzuten nituen nire belarran eta horrek zorotzen ninduen. Arinago mugitzen hasi nintzen eta berak atzera bota zuen gorputza. Geldi geratu zen, begiak galdurik, nik markatzen nuen erritmo eta mugimenduetan murgilduz. Azkenean besoak zabaldu eta oihu egin zuen, pelbisa pixkanka mugituz, bere zakila etxetxoan ahalik eta barruen sartu nahian.

Horrela gelditu ginen une batez, bera lasai, orgasmo batek eramaten zaituen espazio eta denbora abstraktu hartan gelditu nahian. Eta ni bero, kitzikatua, gehiagoren nahian. Orduan, sofan etzan ginen eta ikutzen hasi zitzaidan. Ondo zekien zelan mugitu atzamarra nire gorputza hezur eta haragiaren mugetatik haratago eramateko. Eta nik ez

nuen inolako erresistentziarik jarri nahi. Begiak itxi eta sentitu, nire gorputza (eta beste guztia) bere eskuetan jarriz.

Hilabete geroago Tunezera joan ginen oportretan, nire hango lagun baten etxera. Basamortua zen orain aurrean genuen itsasoa eta bertan ere ez genuen larrutarako unerik galdu. Etxean ez geunden bakarrik eta, beraz, zaratarik ez egiteko moldatu behar ginen. Oso bero jartzen gintuen horrek. Suabe mugitzen ginen, elkar ikutzen genuen. Eta zaratarik egin ezin izateak zarata egiteko gogoak areagotzen zizkigun, mugitzeko gogoak sortzen zizkigun. Zoroturik muxukatzen genuen elkar, haginka egiten genuen... Behin Marcok izozkailuan garagardo lata sartu eta geroago atera zuenean gorputza zeharkatzen hasi zitzaidan. Tunezen deskubritu genuen biok maite genituela temperatura aldaketak, hotza eta beroa tartekatzea. Eta gau hartan hankartean eman zizkidan muxu bero eta hotzek basamortuaren handitasunean galduarazi ninduten.

Egun batean, nire lagunaren amak, hazi batzuk erabiliz patua iragartzeko zaletasuna zuenak, Marcori irakurri zion etorkizuna. Hiru denboratan berriro alde egingo zuela esan zion. Ni lur jota gelditu nintzen, emakume horrek buruan behin eta berriz nuen amaiera puntu hori gogorarazi baitzidan. Ume bat izango banintz bezala, korrika joan nintzen komunean izkutatzera. Nire txokoa behar nuen, nire arauak zituen espazioa, noiz sartu eta noiz atara, nik erabakiko nuen lekua.

Nire eskuetan ez zegoen amaiera puntu horretan pentsatzeak min ematen zidan, obsesio bihurtu arte. Obsesionatzen ninduen etorkizunak. Zer gertatuko zen gure artean? Berriro joango al zen Txilera? Baina, aldi berean, horrek berarekin nituen une guztiak aprobetxatzera eramaten ninduen. Burua kolapsatuta nuen eta sexua zen desblokeatzeko modurik onena. Handitasuna genuen aurrean, ez genekien zer zen ondoren zetorrena, ez genekien non zegoen amaiera puntua eta ez jakite horrek agobiatzen ninduen. Orduan, hurrengo ikasturtea hasi zenean, momentuz amaiera puntua nik jartzea erabaki nuen. Eta bera doktoretza egiten ari zen bitartean, lau hilabetez Hego Ameriketara joatea erabaki nuen. Argentinan emango nituen lau hilabete, Hegoaldetik iparraldera, motxila bizkarrean, bidaiatzera. Eta, bidaia horretan, Celeste ezagutzera.

Beraz, amaiera puntu horrekiko obsesioak “Punto final” ipuin hori ezagutzera eramaten ninduen. Cristina Peri Rossi ezagutzera. Eta, horrekin batera, neure burua hobeto ezagutzera. Esan bezala, Atlantikoa zeharkatzen duzun unean, zeure burua engainiatu nahi duzun arren, zure barneko zerbaitek badaki atzean uzten duzuna galtzeko arriskua duzula. Motxila hartuta alde batetik bestera zabiltzan momentuan, badakizu bakarrik zaudela eta etxerik ez duzula, zure etxea zure gorputza dela.

Gogoratzen dut, edonon lo egiten nuela, izarak izan ala ez, nire losakuan sartzen nintzela beti, eta lokartu aurretik burua sartzen nuela, nire espazio propioa zen txoko horretan babestuz.

Tontokeria bat dirudi baina bidaia hartan ikasi nuen zer zen handitasuna. Jaio nintzenetik Kantauri Itsaso handi eta zabala aurrean izan arren, etxetik hamaika mila kilometro ingurutara ikasi nuen handitasuna gure aurrean dugula beti eta bertan igeri egitea dela bizitzaren xarma. *Nono* izeneko herri hartan, Kordobako mendikatearen haran batean (hango baten hitzetan, *en el vientre de la madre*) kokatzen den herri hartan konturatu nintzen beldur niola handitasunari, beldur niola etorkizunari, beldur niola gertatuko zena ez jakite horri, beldur niola bizitzaren xarmari.

Eta Euskal Herrira bueltatzean, Marcokekin Barrikako hondartzara itzuli ginen egun batean kontatu egin nion. Akojonaturik nengoela esan nion, gure artean gertatuko zena ez jakiteak batzuetan paralizatzen ninduela. Irribarre egin zuen eta, uretara sartu zen. Berarekin sartu nintzen eta elkar besarkatu genuen. Berak isilik jarraitzen zuen. Gure gorputzak batu genituen eta gorputzetik muxu ematen hasi zitzaidan. Urak beti lortzen du neure gorputza kitzikatzea. Igeri egiten dudanean urak hankartean egiten dizkidan kili kiliak somatzea bizitzako plazerik handienetako bat iruditzen zait. Eta berarekin uretan besarkatzeak plazer hori areagotzen zuen. Begiak itxi nituen eta atzera bota nuen burua, nire hankartea bere hankarteari itsatsirik. Bere gogortasuna nabaritzen nuen nire pubisean eta horrek, urarekin nahastuta, bero-bero mantentzen ninduen. Momentu hartan, itsasoaren barnean (eta ez itsasoari begira) hasperen egiten ikusi nuen nire burua, bere hankartea somatze hutsarekin barrenak hustutzen, nire beroak urarekin nahastuta sortu zuen kalanbrea sentituz. Bertan erabaki nuen momentuz orgasmoa zela nire gorputzak nahi zuen amaiera puntu bakarra (esan beharra dut, hala ere, multiorgasmika naizenez, nire amaiera puntuak amaigabeak direla...)